

Etsipena eta itxaropena

garo zen Aberri Eguna. Barkatu, baina Francorekin hobek ziren. Haiek bai aberri-egunak! Ala gazteagoak eta fede sendoagoak (edo inozoagoak) ginelako ote zen? Dena den, ez ditza-gun mamuak berpiztu, eta behean bego aipatua, ondo dago eta!

Zintzo esanda, azkenaldian poz gutxi samar ematen didate alderdi abertzaleek, etsipenak gehiago. Urtea joan eta urtea etorri, zeinek du aldarrikaturiko helburuak lortzeko estrategia zehatzik, plangintzarik, bide-orririk, bidaiderik, eperik? Triste da, baina Aberri Egune-ko adierazpenak umorez eta etsipenez hartu ohi ditut. Dena den, badira bi argi-izpi zerumugan: lehena, Ahal Dugu/Podemosen jarrera Erabakitze Eskubidearen alde. Eta bigarrena, eskubide hori erabiliz datozen hilabeteetan zenbait herri eta eskualdetan egingo diren bozketak.

Lehena are garrantzitsuagoa da, PSE/PSN/PSOeren jarrerak ikusita. Zergatik ote da gurea "obsesio soberanista eta identitarioa", baina ez espainiar nazio handi bakarraren subiranotasuna bai ala bai inposatzea –Estatuaren aparatu guztia lagun, armada barne–, erkidego bateko edo besteko biztanleen gehien-goak besterik nahi izanda ere? Zergatik Erabakitze Eskubideak banatu egi-



Iñaki Mendiguren

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

PSE/PSN/PSOeren jarrerak ikusita: zergatik ote da gurea "obsesio soberanista eta identitarioa", baina ez espainiar nazio handi bakarraren subiranotasuna bai ala bai inposatzea, Estatuaren aparatu guztia lagun, armada barne?

ten du gizartea, *statu quo*a mantentzeak edo beste edozein hauteskunderen banatzen ez badute? Zergatik hitz egiten da gure "etnizismo eksklusibistaz", boto-eskubidea berme eta balio berekoa bada

biztanle guztientzat, euskal abertzale sutsua nahiz espainiar nazionalista amorratua izan?

PSE autodeterminazioaren aldeko pankartaren atzean ibili zeneko garaiak ahaztuta, Ahal Duguren jarrera berri-tzailea da, ezin demokratikoagoa; jarrera gotortu, blokeatu eta zaharkituen aurrean, haize fresko eta gaztea. Bejondeiela!

Bestalde, zuzenean edo zeharka Gure Esku Dagoren ekimenez, laster botoa emateko aukera izango da hainbat herritan. Aintzatespen ofizialik gabe, balio sinboliko eta morala izango dute; baina gauzak ondo egiten badira, balio pedagogiko handikoak ere izan daitezke. Hortxe ikusten dut erronkarik handiena: jende guztiari (ez gure sokakoei bakarrik) garbi azaldu behar zaio zergatik biziko ginatkeen hobeto burujabeago izanda, gurea geure gain hartuta.

Lan handia dago egiteko gehiengo garbiak lortu nahi badira! Ahaztu egiten dugu sarri, baina Eskozian edo Quebecen bezala botoa emateko garaia iristen denean, berdin balio dute boto guztiek, ausartenek eta beldurtienek, daukagunari eustea da minimoa, eta hori galtzeko beldurra erraz ereiten duten hazia da. Hobe genuke ez ahaztea ustekabe muturrekorik ez jasotzeko! ■



Liburu azoka

Amurrion, apirilaren 14tik 17ra Juan Urrutia plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!